

## Santurtziko Udal Euskaltegiaren sareko zerbitzua

Ikasle eta irakasleei laguntzea helburu

**J**akina da Santurtziko Udal Euskaltegiak arreta handiz zaintzen duela bere zerbitzuen kalitatea. Ikasleen gaitasun komunikatiboari buruz euskaltegiko irakasleek egin duten lana ere goraiatzekoa da zinez. Oraingon, beste ekimen interesgarri bat ere badugu euskaltegi berean: web-gunea.

Euskaraz ikasi nahi duenari laguntza ematea da web-gune honen helburuetako bat. Zenbait lotura guztiz erabilgarri eta hainbat testu ezarri dituzte bertan. Gainera, sarbide errazeko ariketa-bankua ere garatzen ari dira.

Ikasleei ez ezik, ordea, Santurtziko Udal Euskaltegikoek irakasleei ere lagundu nahiko liekete eta, horretarako, didaktikari buruzko hainbat informazio bildu dute beren web-gunean.

Zerbitzuaz baliatu nahi izanez gero, hona helbidea: [www.santurtzieus.com](http://www.santurtzieus.com)

Udal Euskaltegi honetako arduradunekin harremanetan jarri nahi izanez gero, berriz, hona: [webmaster@santurtzieus.com](mailto:webmaster@santurtzieus.com)



**Euskararen Berripapera** zure etxean doan jaso edo ezagunen bati bidaltzea nahi baduzu, idatzi helbide honetara:

### Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Donostia-San Sebastián, 1  
01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)  
Tel.: 945 01 81 16  
e-posta: [l-sosoaga@ej-gv.es](mailto:l-sosoaga@ej-gv.es)

Euskaraz  Gaztelaniaz

Izen-deiturak: .....

.....

Helbidea: .....

.....

Herria: .....

Kodea: .....

Lurraldea: .....

Tel.: .....

e-posta: .....

## IX. Soziolinguistika Jardunaldiak Alcoin

Maiatzaren 19 eta 20an izango dira eta hizlarien artean da Xabier Erize irakaslea

**O**hi duenez, Soziolinguistika Jardunaldiak antolatu ditu aurten ere Alcoiko (Alacant) Udalak. Maiatzaren 19 eta 20an izango dira eta "Hizkuntz Gatatzka eta Ideologia" izango dute izenburu.

Hona hizlari jardungo duten irakasleen zerrenda eta beren hitzaldien gaiak: Rafael Ninyoles, "Hizkuntz Gatatzka eta Ideologia"; Teun A. Van Dijk, "Diskurtsoa eta Ideologia"; Xabier Erize, "Mentalitate eta ideologia erdaldunen komunitatearen euskarari buruzko diskurtsoan"; Francesc Espinet, "Klase sozialak eta hizkuntz ideologia. Azterketa historikoa"; Josep Ramon Llobera, "Hizkuntza eta nazionalismoa"; Rafael Castelló, "Nazionalismoak eta hizkuntz jarrerak Valentiako Komunitatean: hurbilpena"; Miquel Àngel Pradilla, "Hizkuntz- eta identitate-oharrak blaverismoaren inguruan".

Jardunaldietan parte hartu nahi dutenek Alcoiko Udalaren Hizkuntz Normalizaziorako Bulegora jo besterik ez dute 965537121 telefonora hots eginez edo e-posta bidez: [gabinet-valencia@alcoi.org](mailto:gabinet-valencia@alcoi.org)

# EUSKARAREN Berripapera

## sumarioa

1 • Irakurzaletasuna bultzatzeko kanpaina

2 • Pertsonaia: Gerhard Bähr

• Laburrak: Karlos Santamaria beka  
Rikardo Arregi sariak  
Bibliografia liburua

3 • Toponimia mintegia  
• Euskararen jaiak  
• Egonaldiak familia euskaldunetan

4 • Santurtziko Udal Euskaltegia sarean  
• Soziolinguistika jardunaldiak Alcoin

## 12-16 urte bitarteko gaztetxoak izango dira hartzaile nagusi Irakurzaletasuna bultzatzeko kanpaina abiatuko da datorren ikasturtean

**I**rakurzaletasuna bultzatzeko kanpaina antolatu du Eusko Jaurlaritzak Kultura Sailaren eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren eskutik. Hurrengo ikasturtean abiaraziko da, Euskal Herri osoan zehar izango da eta hiru urteko iraupena izango du.

Kanpainak *Xagux@rrak: Donatoren tertulia* izango du izenburu eta 12-16 urte bitarteko gazteei dago zuzendurik bereziki, nahiz eta euren irakasleei eta gurasoei ere badagokien.

Ekimen honen helburu nagusietako bat Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza ikasten ari diren gaztetxoei beraiantzat berariaz aukeraturiko liburuak eskura jartzea da, ingurune erakargarrian beti ere.

Irakasleei dagokienez, hauek irakurtzeak duen garrantziaz jabe daitezen nahi da, euskaraz dugun literatur ekoizpena behar bezala balora dezaten.

### AUTOBUSA: GELA IBILTARIA

Kanpaina honek bere espazioa izango du: 40 metro karratuko azalera duen 12 metroko autobus zaharberriua. Barruan, gela ibiltaria izango du, beraz, eta liburutegia eta hainbat ekintza garatzeko behar diren baliabide guztiak izango ditu. Adibidez, ordenagailuak, bideoak, e.a.

Autobus hau beren beregi sortu da kanpaina honetarako eta ipuinak, jolasak eta tailerretan proposaturiko ekintzak burutuko dira bertan.

Kanpoan, kanpainari izena ematen dion animalia-  
ren marrazkia izango du autobusak.

### TAILERRAK, OSAGAI NAGUSI

Tailerren bidez egituratuko dira irakurzaletasuna bultzatzeko saioak. Hiru tailer izango dira: lehen gaztetxoei zuzendurik izango da; bigarrena, irakasleei; hirugarrena, gurasoei.



Gazteekin egingo den tailerrak bost saio izango ditu. Lehen lau saioak bata bestearen ondoren egingo dira, lau astetan, eta arduradun batek bideraturik egingo dira. Bosgarrena, berriz, horien ondoren, hilabetearen buruan egingo da; azken saio honetan ikasleari bere kasa ibiltzeko aukera emango zaio, liburuak bilatu, aukeratu, ikusi eta maileguan hartzeko. Ordu bete iraungo dute saioek, eta asteko egun eta ordu berean burutuko dira.

Ikasleek literatur generoak ezagutzeko ahalegina egingo da eta, horretarako, saio bakoitza genero jakin baten inguruan landuko da. Besteak beste, abenturak, misterioa, fantasia, pertsonen arteko harremanak, gertaera historikoak eta ahozko tradizioa.

Bigarren tailerraren helburu da ikastetxeetako zuzendari, irakasle, liburuzain eta gainerakoei irakurzaletasuna bultzatzeko planak sortzeko aholkularitza eta formazioa eskaintzea.

Gurasoei zuzenduriko tailerraren helburu nagusia, azkenik, informazioa ematea izango da. Irakurzaletasuna etxean bultzatzeko irizpideak emango zaizkie, batetik, eta euskarazko liburuen gaineko berriak adieraziko zaizkie, bestetik.

Hiru urteko kanpaina ibiltari hau Euskara Biziberritzeko Plan Nagusian finkatutako neurriak garatzearren antolatu du Eusko Jaurlaritzak.



# laburrak

## KARLOS SANTAMARIA BEKA



Karlos Santamaria ikerketa-bekaren deia egin du seigarren urtez Donostiako Udal Patronatuak. Bekaren helburua da teknologia eta gizarte-zientzietan euskarazko ikerketak bultzatzea. Proiektuak aurkezteko epea maiatzaren 19an itxiko da.

## RIKARDO ARREGI SARIAK

Rikardo Arregi sariaren deia egin du Andoaingo Udalak. Euskaraz kazetaritza bultzatzea da helburu eta prentsa zein ikus-entzunezkoetako lanak onartuko dira. Bi sari emango dira: Kazetaritza saria eta Kazetari Berria saria. Iazko maiatzaren 16tik aurtengo maiatzaren 15a bitartean argitaraturiko lanak hartuko dira kontuan, eta Andoaingo Udaletxera bidali behar dira, maiatzaren 25a baino lehen.



## BIBLIOGRAFIA LIBURUA



XIX. eta XX. mendeetako aldizkari eta egunkarietan ageri diren euskarazko bertso eta olerkien bibliografia bildu du Julen Urkiza ikertzaileak. Joan den mendean hasi eta 1990 arte, euskarazko bertso eta olerkiei buruzko datu bibliografikoak jaso ditu Urkizak. Informazioa CD-ROM batean argitaratzea ere aurreikusi du egileak.

## Pertsonaia

# GERHARD BÄHR (1900-1945)

### Euskalaria jaio zeneko lehen mendeurrena



**G**erhard Bähr 1900. urteko maiatzaren 6an jaio zen Legazpiko Aduna auzoan. Friedrich Bähr zuen aita, Aizkorri magalean zegoen Katabera meategiko ingeniari zuzendaria. Alemaniatik bertatik ekarrazitako irakasleek hezi zuten Gerhard, Legazpin, gainerako senideekin batera. Hemezortzi urte zituela, dena den, Alemaniara bidali zuten gurasoek hizkuntza klasikoak ikastera. Lehen Mundu Gerran parte hartuta itzuli zen Legazpira 1919an.

Euskararekiko zaletasuna piztu zitzaion sorterrian eta euskaraz ikasteari ekin zion. Bi urteren buruan hitz egiten eta idazten ikasita zegoen. 1921ean euskaltzain urgazle izendatu zuten, Legazpiko aditzari buruzko txostena irakurririk: "Flexiones verbales de uso actual en Legazpia (Goyerri)". 1925ean argitaratu zen lan hau Euskaltzaindiaren *Euskera* aldizkarian.

Schuchardt euskalari alemaniarren lanak itzultzen hasi zen 1922 eta 1923an, Resurrección María Azkue euskaltzainburuaren aginduz. Era berean, Azkueren *Latsibi* ere gipuzkerara itzultzeari ekin zion garaitsu horretan, eta Azkue beraren *Erizkizundi Irukoitza* inkestarako datu biltzen jardun zuen Gipuzkoan, herriz herri, eta horrela zebilela euskal aditzari buruzko datu asko ere bildu zuen. *RIEV* aldizkarian argitaratu zituen datuok, 1926, 1931, 1934 eta 1935ean argitaraturiko lanetan. Ondorioz, "Estudio sobre el verbo gipuzcoano" lanerako informazio handia jaso zuen.

Itzulpenez eta aditzari buruzko lanez gainera, hiztegi etimologikoa ere egin nahi izan zuen, Larramendiren eta Sabino Aranaren etimologia irizpideen kontra. 1925ean, "Sobre el nombre del plomo en vascuence" lana idatzi zuen, hurrengo urtean *RIEV* aldizkarian argitaraturikoa.

1926an, kimika, frantsesa eta ingelesa irakasteko agiriak eskuan, Hannover-a joan zen Gerhard Bähr, nahiz eta euskararen aldeko atxikimenduari beti eutsi zion. 1927an Schuchardt hil zenean, adibidez, gipuzkera ederrean idatzi zuen "Schuchardt zana", haren ohorez. Alemanian bertan, euskara eta Europako gaineratik hizkuntzak konparatzeari ekin zion eta hainbat lan argitaratu zituen 1928tik 1936ra, *RIEV* eta *Euskera* aldizkarietan gehienbat.

Doktore-tesia irakurri zuen 1940an Göttingen-en, "Baskisch und Iberisch" izenburupean, non euskararen eta iberikoaren jatorri bera ukatzen zuen, Schuchardt-en eta besteren iritziaren kontra. Zortzi urte geroago argitaratu zen tesia *Eusko Jakintza* aldizkarian. 1941ean idatzi zuen bere azken lana, Alemaniako *Weltverkehrs Sprachen* aldizkarian, "Das Baskische" izenburupean. Bertan, euskararen jatorriaren, ezaugarrien eta egoera soziolinguistikoaren gainean idatzi zuen.

1945eko apirilaren hondarreen hil zen, Euskal Herrira atzera itzultzeko gogoia bete gabe.

## Toponimiari buruzko mintegia Euskal Herrian

Ekainean burutuko da eta Québec-eko bi aditurik nagusienek hartuko dute parte

**T**oponimia-mintegia burutuko da ekainean Euskal Herrian. Askoren artean, Québec-eko bi aditu izango dira bertan: Henri Dorion eta Christian Bonnelly. Lehena, Dorion, Québec-eko Toponimia Batzordeko buru izana da. Abokatua eta geografoa da eta Laval-eko Unibertsitateko irakaslea. Era berean, leku-izenetarako Nazio Batuen Erakundear


en Adituen Batzordeko buru izana da eta Hego Amerikako toponimia-taldeei ere prestakuntza-ikastaroak emanda dago. Christian Bonnelly, berriz geografoa da eta Québeceko Toponimia Batzordean lan egiten du. Normalizazioko aditua da eta toponimiari buruzko legeak, idazketa-arauak, irizpideak, kanpotan eta beste ditu bere lan-arloak.

Bi adituak ere eskarmentu handikoak dira toponimiaren normalizaziorako nazioarteko auzitegietan, Nazio Batuen Erakundearen mailan batik bat. Hala Henri Dorion nola Christian Bonnelly Québec-en diren bi aditurik nagusienak ditugu. Ekainean Euskal Herrian egingo den mintegian, toponimoen erabilera, bide-seinaleak, jatorria e.a. aztertuko dituzte.

## Euskararen jaiak

**E**uskararen jaiak ospatzen hasi dira maiatzean. Iparraldeko ikastolen jaia izango da lehena, hilaren 14an, Senperen. Hilaren 24an Bizkaiko Ikastolen jaia izango da, Ibilaldia, Balmasedan. Ondoren, ekainaren 11an Euskal Eskola Publikoaren Jaia izango da Donostian, eta hilaren 8an, berriz, Araba Euskaraz egingo da Laudion.

Gero, udazkenean, Gipuzkoako ikastolen aldeko Kilometroak, urriaren lehenengoan egingo da, aurten Azpeitian. Azkenik, urriaren 22an, Iruñean izango da Nafarroa Oinez.



## Egonaldiak familia euskaldunetan

**A**urten ere Egonaldiak Familia Euskaldunetan programa antolatu du HABEK. Programaren helburu da euskara ikasten edo hobetu nahian, nahiz tokiko euskalkia ezagutzeko asmotan dabilenari familia euskaldun batean hila bete bat edo bi pasatzeko aukera eskaintzea uztailean, abuztuan edo irailean. Parte hartu nahi duen ikasleak 18 eta 45 urte bitartean izan behar

ditu eta, gainera, euskara-maila txukuna ere izan behar du (8. urratsa edo hortik gora).

Familiak bete beharreko gutxieneko baldintzei dagokienez, biztanleriaren %70etik gora euskalduna duten udalerrietako zein auzuneetako batean bizi behar dute, Euskadiko Autonomia Erkidegoan, Nafarroan edo Ipar Euskal Herrian.

Egonaldia eskaintzen den hilabetean, gutxienez lau kide bizi izatea

ere eskatzen da eta kide guztien arteko ohiko komunikazio-hizkuntza euskara izatea.

Familiak egonaldi bakoitzeko ikasle bat besterik ez dute hartzerik izango, eta ikasleko eta hileko 82.000 pezeta jasoko dituzte hilabeteko egonaldiagatik.

Honakoa dugu familientzako informazio-telefonoa: 943022621.